

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

203. zenbakia

Data 2008-10-22

32021 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK 847/2008 Foru Agindua, urriaren 8koa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Urriaren 8ko 2008/847 FORU AGINDUA

Zergen Foru Arau Orokorrak 82. artikuluan eta bere hurrengoetan jasotakoaren arabera, zergapekoek zerga kontsulta idatziak aurkeztu ditzakete.

Zerga kontsulta idatzietan, eta Administrazioa gerora lotzen duten gainerako prozeduretan, aplikatu beharreko prozedura garatzen aldera, abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua onartu zen. Dekretu horren 3. artikulutik 6. artikulura bitartean, hainbat gai jorratzen dira, hala nola, kontsultak egiteko legitimatuak, idatziak aurkeztea, eta kontsultak tramitatu eta haiei erantzutea. Orobat, 13. artikulutik 16.ra bitartean, Zergen Aholku Batzordea sortzen du eta bere funtzionamendua arautzen.

Bestalde, maiatzaren 20ko 34/2008 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, aldaketak sartu zituen 49/2006 Foru Dekretu horretan, zerga kontsulta idatziak tramitatzeko eskumena duten organoei dagokienez. Bada, aldaketa horien ondorioz, komeni da dekretuan ezarritakoa garatzea.

Honenbestez, abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretuak amaierako lehen xedapenean jasotakoaren babesean, honako hau,

XEDATU DUT

Lehenengo.

Kudeaketa Zerbitzuetako buruei eta gaia dela-eta eskumena duten zuzendariordeei dagokie zerga kontsulta idatziak tramitatzeari, horiek kasuan kasuko unitate edo atalak proposatuta ebatzea, eta interesatuei eabazpena jakinaraztea.

Aurrekoa hala izanik ere, zerga kontsulta idatziak sozietateen gaineko zergari buruzkoak direnean eta, 34/2008 Foru Dekretuaren 6.2.e) artikuluan ezarritakoa aplikatuta, haien eabazpena Ogasun Zuzendaritza Nagusiak bultzatzen duenean, Ogasuneko zuzendariaren ondokoak tramitatu eta koordinatuko ditu erantzun proposamenak, eta Ogasun Zuzendaritza Nagusiak joko ditu behin betikotzat. Kasuan kasuko Kudeaketa Zerbitzuko buruak jakinaraziko ditu beti kontsultak.

Bigarren.

Zergen Aholku Batzordeari bidaltzekoak diren, edo Ekonomia Itunean nahiz Autonomia Erkidegoko zergen arloko koordinazio, harmonizazio eta lankidetzara araudian xedatutakoagatik, beste organo batzuei igorri behar zaizkien erantzun proposamenak Kudeaketa Zerbitzuetako buruek edo gaia dela-eta eskudun diren zuzendariordeek egingo dituzte, eta hala badagokio, baita Ogasuneko zuzendari nagusiaren ondokoak ere, Ogasuneko zuzendari nagusiak oniritzia emanda.

Hirugarren.

Zirkunstantzia tekniko, ekonomiko, sozial, juridiko edo lurralde mailakoengatik komeni denean, Ogasuneko zuzendari nagusiak eskatu dezake berak hartzea Zuzendaritza Nagusiko organoek ebatzi behar dituzten kontsulta idatzien ardura.

Laugarren.

Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabilia aurkezten diren kontsultei ez zaie aplikatuko foru agindu honetan aurreikusitakoa, bitarteko horiek 49/2006 Foru Dekretuaren 3.5 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko urriaren 8a.—Pello González Argomaniz, Departamentuko foru diputatua.
(7337) (11375)